

## SATITSUA ETA SATORRA.<sup>1</sup>

---

Satitsua ari zan  
 soro on batian,  
 arto landare jaten  
 sarturik lurpian;  
 kaltia egin arren  
 nekazariyari  
 esaten zuben:—Ez dit  
 ajolikan neri,  
 bildur geigo ematen  
 dit neri, lurpian,  
 ibildutzen diranak  
 ni beziñ gordian;  
 bildurrez nabill beti  
 noiz bañon noiz emen,  
 nauten arrapatuko  
 arto zañak jaten;  
 satorra ere onen  
 gisan zan ibiltzen,  
 ark ere landariak  
 zituben zupatzen,  
 bañan au ere oso  
 beldurti izanik,  
 ibiltzen zan ikaraz

itz abek esanik:  
 —Lapurretan nabil ni,  
 baña naiz izutzen,  
 nola bakarrik beti  
 ibildutzen naizen....—  
 Ontan topo egiñik  
 biyak an batetan,  
 oso ikaraturik  
 geldi ziran bertan;  
 batek bere artian  
 esaten zuben au:  
 —¡Ai! neriak egindu  
 onechek ilko nau...  
 Bestiak ere onen  
 gisa ziyon:—¡Ené!  
 onek ez dit utziko  
 ezer egin gabe.—  
 Ala bata bestien  
 beldurrez zeudela,  
 diyo au satitsuak  
 bestiari onla:  
 —Badakit nere gisa  
 beldurrez zaudela,

(1) Fábulas premiadas con *mención honorífica* en los Juegos florales celebrados en esta Ciudad en 1888. (Véase pág. 567 del tomo XIX.)

bañan lapurretan, ni  
bezin prest zerala,  
eta ni ere nola  
nabilen igualtsu,  
zér egin bear degun  
arren, adi-zazu:  
Nola biyak asmo bat  
daukagun artua,  
artzagun ondo biyak  
geren pekatua;  
obe degu elkarren  
laguntzan ibilli,  
beldur guchigo degu  
erukiko noski;  
eta izanik emen  
jateko-aukeran,  
ai zer ederkí biyak  
bizituko geran.—

Bañan biyak batian  
zeudela lurpian,  
achur bat sartu-zuten  
bertara-kolpian,  
eta bizkarren erdi  
erditik sarturik  
gelditu ziran biyak  
an, chirchillaturik.  
· · · · ·

Bazter galtzalle asko  
izanik munduban,  
konpondutzen dirade  
abenchen moduban;  
elkarren lagunkidan  
ibiltzen baitira,  
bañan azkenerako  
eroritzen dira.

## BARATZAKO ARROSA ETA SASIKOA.

---

Arrosacho eder bat  
baratzabatean,  
oso orriz betea  
baizeguen aidean,  
ain zan polita guztiz  
eta egokiya,  
kolore ederduna,  
aiñ churi gorriya,  
zeñak uste baizuben  
bere izatia,  
izango zala andik  
errira joatia,

galai edo damaren  
soñian jarriya,  
izan zediñ guztiyen  
begiragarriya.  
Sasi tarte batean,  
erdi ageriyan,  
zeguan beste arrosa  
oso miseriyana,  
esanaz:—Neri ez dit  
iñork begiratzen,  
alaz guziz emenchen  
pozez naiz bizitzen.—